

IRRIEN LAGUNAK KLUBA

I. BIDEO LEHIAKETA

Albaola Itsas Faktoriaren laguntzaz



Hiru modalitate egongo dira, familiena, lagun-taldeena eta ikastetxeetako gelakideena.

Gaia: **ITSASOA**

Lanak entregatzeko epea: URTARRILAREN 15TIK OTSAILAREN 15ERA ARTE.

Bideoa egiteko, talde guztiek euskal abesti bat hartu beharko duzue oinarri bezala, eta "Txo Mikmak txikia" diskoaren "Albaola" abestia aukeratzen duzenok, aurkezten zareten ataleko sariaz gain, ALBAOLA ITSAS FAKTORIAren sari berezia irabaz dezakezue.

Sari potoloak ditugu! Hasi lanean eta bidali zuen bideoak!



ITSAS
KULTUR
FAKTORIA



2006



Anetsetan? Egizu legan!

LEHIAKETAREN OINARRIAK:

GAIA. ITSASOA. Albaola Itsas Faktoriak zurezko itsasontzien eraikuntzaren inguruan unibertso itsastar bat sortu du. Baina unibertso horrek Euskal Herriko barnealdeko eremuak ere bere baitan biltzen ditu: Sakanako basoak, Iratiko zuhaitz erraldoiak... Beraz, gaia, era zabalean ulertzeko aukera duzue!

IRAUPENA. Bideoaren iraupena gehienez 5 minutukoa izan daiteke.

EPEA. Bideoak 2015eko urtarrilaren 15etik otsailaren 15eko gaueko 12:00ak baino lehen aurkeztu behar dira.

PARTE-HARTZAILEAK. Lehiaketa honetan hiru modalitate egongo dira: familiek, lagun-taldeek edota ikastetxeetako gelakideek har dezakete parte eta bertan edozein adinetako jendea ager daiteke.

PARTE-HARTZEA.

- Parte-hartzaile bakoitzak nahi beste lan bidal ditzake.
- Bideoak WeTransfer zerbitzuaren bitartez (wetransfer.com) bidali behar dizkiguzue kudeaketa@irrienlagunak.com helbidera. Bidalketa mezuan, familiaren, lagun-taldearen edota ikastetxeko gelakideen izena, herria eta kontaktua idatzi beharko dituzue.
- Oinarriak betetzen dituzten bideoak www.irrienlagunak.com webgunean zintzilikatzen joango gara iritsi ahala, eta 2015eko martxoaren 2tik 15a arte, ikusleen botoak jaso ahal izango dituzte.
- Ordenagailu bakoitzetik egunero boto bat besterik ezingo da eman.

ARAUAK.

- Bideoak edukí guztiak euskaraz bakarrik egon behar dira. Aurkezten diren bideoek originalak eta argitaratu gabeak izan behar dute. Ez da onartuko aurrez beste lehiaketaren batera aurkeztutako lanik.
- Antolatzaileek aurkeztutako bideoak lehiaketatik kanpo uzteko eskumena izango dugu, baldin eta bideo horiek giza eskubideak urratzen dituztela irizten badugu. Bortizkeria, irainak, arrazakeria, sexismoa edota errespetu falta ez ditugu onartuko.
- Lan sarituen egileak 2015eko martxoaren 26an, Albaola Itsas Faktorian egingo den sari banaketara joan beharko dira.
- Parte hartzeak esan nahi du egileak aitortzen duela bidalitako lanaren eta haren edukiaren arduraduna dela.
- Onartutako bideoen egileek IRRIEN LAGUNAKi uzten dizkiete euren irudien komunikazio eta erreproduzio eskubideak.
- Arestian zerrendatutako arauak betetzea ezinbestekoa da aurkeztutako lanak aintzat hartuak izan daitezen.

SARIAK

- Atal bakoitzean bi sari banatuko dira: epaimahaiarena eta publikoarena. Publikoarenak, webgunean jasotako botoen arabera izango dira.
- Epaimahai berriz, Albaola Itsas Faktoriako eta Irrien Lagunak klubeko arduradunek osatuko dute.
- **Familien atalean:**
 - Epaimahaiaren saria: EROSKI Bidaiak eta Ohtels katearen eskutik, LAU GAUEKO EGONALDIA Tarragonako Les Oliveres**** hotelean
 - Publikoaren saria: EROSKI Bidaiak eta Ohtels katearen eskutik, HIRU GAUEKO EGONALDIA Tarragonako Les Oliveres**** hotelean
- **Ikastetxeetako gelakideen atalean:**
 - Epaimahaiaren saria: Irrien Lagunak klubeko gunea + ikuskizuna
 - Publikoaren saria: Irrien Lagunak klubeko gunea + ikuskizuna
- **Lagun-taldearen atalean:**
 - Epaimahaiaren saria: Belaontzi batean egun pasako irteera 11 pertsonarentzat
 - Publikoaren saria: Belaontzi batean goiz pasako irteera 11 pertsonarentzat
- Albaola Itsas faktoriaren Sari berezia: Sari banaketan argituko den sorpresa izango da eta irabazleen ezaugarrietara egokitutako saria izango da!

(*) Ohtels katearen Les Oliveres**** hotelean, astebeteko egonaldia bi heldu eta bi haurrentzat, itsasora bistak dituen suite familiarrean, dena barne. 2015eko ekainaren 30a baino lehen egin behar da egonaldia, Aste Santuko oporrak salbu.

(**) Irrien Lagunak eta irabazleen artean adostu beharko dute gunea eta ikuskizuna ikastetxera eramateko eguna, eta kontrakorik adosten ez bada, astegun batean izango da.